

PRENTSA OHARRA

ARAIZKO KABLEAREN EGUNA 2026: MALLOKO BELARRA KABLEZ GARRAIATZEKO SISTEMA ZAHARRA BERRESKURATU ETA EZAGUTZEKO JARDUNALDIA

Datorren larunbatean, irailaren 19an, Araizko Kablearen Egunaren bederatzigarren edizioa ospatuko da Gaintzan. Jardunaldiaren bidez, XX. mendearen erdialdera arte Araizko Malloan erabiltzen zen belarra moztu, prestatu eta kable bidez bailarara garraiatzeko sistema ezagutarazi eta garai hartan lan horretan aritu ziren pertsonak omenduko dira.

2017an antolatu zen lehen aldiz Araizko herritarren ekimenez, **Araizko Udalaren eta Araizko Zaporeak elkartearen arteko lankidetzari esker**, eta ordutik ia urtero egin da. Lehen edizioak Intzan egin ziren, eta azken urteotan Gaintzan, Zezelain inguruan, **Malloko Kablearen Behatokia** kokatuta dagoen lekuan.

Jardunaldiak Araizko bailarako ondare **historiko, etnografiko, natural eta kulturalaren** ezagutza eta transmisioa sustatzea du helburu. Era berean, baserritarren bizimodua, landa-ingurunearen erabilera tradizionalak eta bailarako natura- eta kultur-ondarea balioan jartzea bilatzen du.

Jardunaldiaren egitaraua

Eguna **Gaintza herrian** hasiko da. Parte-hartzaileak herriko plazatik abiatuko dira oinez, **11:00etan**, eta 1,5 kilometro inguruko ibilbidea egingo dute, 150 metroko desnibelarekin, Zezelainera iritsi arte. Ibilbidea porlanezko pista batetik egiten da.

Zezelainen, **Malloko Kablearen Behatokiaren inguruan**, garai bateko belar-lanak nola egiten ziren erakutsiko da. Parte-hartzaileek bertatik bertara ezagutuko dute **sega nola zorrozten eta erabiltzen zen, belarra nola mozten zen eta buixiak nola prestatzen ziren**, ondoren belar-fardoak kablean behera bailarara garraiatzeko.

Erakustaldiaren bidez, aurreko mendeko **1920ko eta 1970eko hamarkaden artean Malloan ohikoak ziren lanak** berreskuratuko dira, eta garai hartako baserritarren eguneroko bizimoduaren zati bat ezagutzeko aukera izango da.

Jardueraren ondoren, Gaintzara bueltatuta, **bertako produktuekin egindako pintxoak** eta edariak eskainiko dituzte eta, ondoren, Gaintzako Sonbelu Elkartearen bazkari eder batekin amaituko dute ekitaldia.

Bazkarirako txartelak aurrez erosi beharko dira **Arribeko Surtidorean eta Maritereren dendan**.



**ARAIZKO
UDALA**



Irisgarritasuna eta hizkuntza

Ibilbidea oinez egiteko zailtasunak dituzten pertsonentzat **ibilgailuz igotzeko zerbitzua** jarriko da, behar dutenentzat.

Ekitaldiko azalpenak **euskaraz** egingo dira. Araitz UEMAko udalerria da, euskararen arnagunea, eta euskara lehenesten du bere harreman eta jardueretan. Gaztelaniaz jarraitu nahi dutenentzat **interpretazio-zerbitzua** eskainiko da Telegram bidez, Araizko Irratiaren kanalean. Horretarako, mugikorra, Interneteko konexioa eta entzungailuak eraman beharko dira.

Ibilgailuz Gaintzatik Zezelainera igotzea ez da baimenduko, trafiko-arazoak eta pilaketak saihesteko. Horregatik, ahal dutenek oinez egitea gomendatzen da.

Malloko Kablearen Behatokia

2025ean martxan jarritako [Malloko Kablearen Behatokia](#) Zezelain inguruan dago, berreskuratutako kablearen ondoan. Interpretazio eta erakusketa-gune txiki honen helburua da bisitariei Araizko kableen historia eta funtzionamendua ez ezik, Malloko ingurune natural, historiko eta kulturala ere ezagutzeko aukera ematea.

Behatokiak bost informazio-panel ditu, eta horietan Malloaren biodibertsitatea, bizimodu eta aprobeitxamendu tradizionalak —artzaintza, karobiak, bideak, teileriak eta kableen sistema, besteak beste—, fauna eta natura, eta ekosistemen hauskortasuna azaltzen dira.

Espazioa **modu autonomoan bisitatzeko** diseinatuta dago, eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako irakurketa errazteko hainbat eduki ere prestatu dira.

Behatokiaren proiektua **Nafarroako Gobernuaren finantzaketarekin** gauzatu da eta Araizko Udalaren eta Araizko Zaporeak elkartearen lanaren barruan kokatzen da, bailarako ondare historiko, kultural, etnografiko eta naturala balioan jarri eta behar bezala kudeatzeko helburuarekin.

Ondarearen transmisioa eta landa-kulturaren balioa

Araizko Kablearen Egunak, erakustaldi praktiko baten bidez, **bailarako memoria kolektiboa eta belaunaldiz belaunaldi transmititutako ezagutza berreskuratzea eta zabaltzea** du helburu.

Kableen sistemak garrantzi handia izan zuen Malloko belardi malkartsuetatik belarra bailarako baserrietara jaisteko. Sistema horri esker, bestela oso zaila izango zen



**ARAIZKO
UDALA**



materiala garraiatzea posible egiten zen, eta baserrien eta Malloaren arteko harremana ezinbestekoa zen garai hartako abeltzaintza eta landa-ekonomiarentzat.

Jardunaldiaren bidez, iraganeko bizimodu horren berri eman nahi zaie belaunaldi berriei, eta aldi berean **Araizko landa- eta natura-ondarearen balioa azpimarratu**.

Ekitaldia **Araizko Udalak eta Araizko Zaporeak elkarteak** antolatzen dute, eta **Plazaola Partzuergo Turistikoaren** laguntza du.

Arriben (Araitz), 2026ko irailaren 7an.

Informazio gehiago: [Araizko Kablearen Eguna](#)

Harremanetarako: 717 708 828 (Asier)



**ARAIZKO
UDALA**

